



ARANTZAZU

❧ Zaharra orainaldi ❧

— ARGAZKI ERAKUSKETA —



Isaak Atutxa Etxebarria
Arantzazu 1996

ARANTZAZU
zaharra orainaldi
ARGAZKI ERAKUSKETA

ISAAK ATUTXA ETXEBARRIA
ARANTZAZU, BAGILA 1996

Eragile:  Moxogan

MOTXOGAN
KULTUR
TALDEA



Arantzazu, 1948 aldera

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren dirulaguntzari esker ikusi dau argia.

Azalaren diseinua Iñigo Guillen Montes lankidearena da.

Aitzinsolasa

Behin, San Mames futbol zelaira Athletikena partidu bat ikusten joan eta han gertatu zan kontu bat ahaztu ezina izan dot arrezkero. Esarlekuak jendez gainezka egozan eta han ebulan bakoitza, gradak gora gradak behera, leku bila. Halango batean, gazte batzuk agure bat bere ilobatxoagaz ezarrita egoan tokira heldu eta euren tokiak hartu gurean ihardun zirean. Agure ha guztiz irainduta eta zeregin ezean gelditu zan. Orduan, mina hartu neban bihotzean (ala burminetan?, izan bere, ez dakit ondo sentimendu horreek nora barneratzen jakuzan). Geroztik, norbaitzuek begirunerik sortu badabe nigan, horreek gure gurasoak, pertsona helduak izan dira.

Bestalde, abestiak dinoan legez, nik ez dot sekula neure sorlekua hautatu baina, halabeharrez, nonbait sortu naiz, eta nonbait horrek Arantzazu dau izena. Arratiako herririk txikiena dogu Arantzazu, jendearen ahotan oso gitxitan ibili eta, dabilenean bere, batek daki zein tokitan kokatua edo zein herriren auzo bihurtuz.

Bi osagai honeek hartuta, herria eta herritarren aldeko zerbait egin behar nebala eta erakusketa hau prestatu neinkeala bururatu jatan. Burutazio hori, ostera, hor izan da nire barruan gordea, aurten nahikoa zala eta, Axularrek Gero liburuan gogorarazoten deuskugunaz oroitzuz (“... *etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. ... Eta hartan, gero dioenak, bego dioela erakustea...*”), nik neuk ere ezin neinkeala bego esan eta lanari ekin deusot.

“Arantzazu, zaharra orainaldi” izenburupean bildu dodazan argazki hauen helburua, bada, azaldua dot dagoeneko: Aintzinako gertakizun eta pertsonak orainaldi bihurtu, bidebatezko omenaldia eskainiz. Argi itxi gura dot, aukerari eutsiz, erakusketa honetan agertzen direanak direan gehienak dirala (argazkia ezagutzen danetik batipat). Argi neukan Arantzazun sortuak diranen ordezkariak agertu behar ebela erakusketan eta, ez dagoenik balego, ez da bilatu ez dodalako... Kontuan izan, bestalde, bostehun argazkitik gora jasotzeko aukera izan dodala eta aukeraketa bat egin behar eta aukeratuak aukeratu dirala, beste barik.

Ez neuke aitzinsolas hau bukatu gura erakusketa eta liburu hau gauzatzen esku bat bota deustazuen guztioi neure eskerrona agertu barik. Eskerrak, lenengo eta behin, zeuon argazkiak itxi deustazuezan herritar guztioi: badakit, jakin, argazkiok zeuon oroimen asko isladatzen dabela eta sarri askotan oso zail egiten jatzuela jendeari agertarazotea; horregaitik,

barrero bere neure eskerrik beroenak. Ez neuke aitatu barik itxi gura Manu Legarreta eta Loli Intxaustik eskaini deusteen laguntza zorioneko dirua lortu ahal izateko; esan daikedan bakarra zera da, diru horrerri esker dozuela orain liburu hau eskuetan. Eskerrak Juan Mari Jauregi, Iñigo Guillen, Felix Carramiñana eta Juan Luis Azkune lankide eta adiskideoi zeuon irakatsi teknikoengaitik; eskerrak Tibur argazkilariari eta Graficas Arratiako Pedro Antoniori, eskerrak Motxogan Kultur Taldeari, eskerrak Diario El Correo (bereziki Luis Andreu eta Iñaki Ballanori) eta Arantzazuko Udalari erakusketarako baimenagaitik, eskerrak Jon Urrutxurturi, eskerrak Pedro Ipiñari eta bere lagun Ortegaari eta eskerrak, azkenik, proiektu hau burutzen animatu nauzuen guztioi.

Zuoi, Miren eta Gorka, ostera, parkamenak, oraingoan bere, ohostu deutsuedan denbora guztiagatik.

Isaak Atutxa Etxebarria
Igorre, 1996ko epailaren 28

Amama Maximari, urte guzti honeetan
zehir bion artean eragin dauan harre-
man berezi eta estu honen ordaiñetan

HEMENGO ETA DENETAKO

*Ez dut nik sekula neure sorlekua hautatu
halabeharrez da ni nunbait bainaiz sortu
uzta eta haritza nasai dauden herri batean
sorteak nau kokatu*

*Ibai baten ogean egin ditut lehen urratsak
arizpe batean moldatu lehen ametsak
bi erroen burrukak ez naute izilarazi
herriaren nigar hotsa*

*Batzuek diote inongoak dirala
han izan edo hemen berdin zaiotela
nik ere zein nahi nukeen inongo banintza
lasai nitazke nere buru eta bizitza*

*Munduak neuretzat hemen dauka hastapena
eta nahi nuke ezagutzen banu dena
konpreni dezaket menperaturik dagoena
hemen hasten baita dena.*

Aurkigarria

1. Umetan/gaztetan
2. Soldadutzan
3. Senar-emazteak
 - 3.1 Albitzu, Argiña, Aizpuru, Ibarrondo
 - 3.2 Aitzuzar, Arandui, Arantzazugoitia, Berdolatze, Usabel
 - 3.3 Ibarreta, Olarra
 - 3.4 Bekotxe, Iber-goikoa, Ontone, Rekotxe, Zalbide
 - 3.5 Goirie, Idurieta, Sabalbarri, Troka
 - 3.6 Zelaia
4. Sendia
5. Senitartekoak
6. Lagun artean
7. Gertakizun bereziak